

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**

Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza
*Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES**

Viceconsejería de Planificación y Empleo
*Dirección de Servicios y Régimen
Jurídico*

BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIO INKESTA 2011

EMAITZA NAGUSIAK

Azken txostena: 2012ko azaroaren 19a

EOB Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza)

SARRERA

Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkestan (BAKI), hiru alderdi aztertu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila zehazteko: prestakuntza arautuaren maila; prestakuntza osagarriaren jarduerak (arautu gabeko prestakuntzaren jarduerak barnean hartuta) eta hizkuntzak jakitea, eta lan-esperientzia.

Lan honetan, EAeko biztanleria potentzialki aktiboa aztertu da. Kolektibo horren barruan bi talde sartzen dira. Alde batetik, biztanleria aktiboa, zentzurik zabalenean; hau da, ia-langabeen kategoria barnean hartuta. Horrek esan nahi du, LANE eta EUROSTAT erakundearen definizioen arabera landuntzat eta langabetzat hartzen diren pertsoez gain, honako hauek ere hartu direla kontuan BAKIn aztertutako biztanleria aktiboan: zentzu hertsian lanerako prest egon ez arren, hots, 15 eguneko epean lanean hasteko prest, edo langabetzat jotzeko gutxieneko gestioak egin ez arren, lana bilatzen ari direnak¹.

Bestetik, biztanleria potentzialki aktiboaren barruan sartzen dira lanerako egoera potentzial batean dauden pertsonak ere (aktibo potentzialak). Talde hori BAKIn azterketan sartu izan da 2003ko ediziotik. Aktibo potentzialtzat jotzen ditugu lanik ez daukaten eta lan bila ari ez diren pertsonak, baina, beren ezaugarriekin eta egoera pertsonalarekin bat datorren lan-eskaintzaren bat jasoz gero, hurrengo hiru hilabeteetan lan hori onartzeko aukera planteatu dezaketenak.

2011. urtean, erreferentziako kolektiboa 1.142.821 pertsonakoa izan da EAEn. Kopuru horri aktibo potentzialak kenduz gero (25.762 pertsona), biztanleria aktiboa, zentzurik zabalenean, ia-langabeak barnean hartuta, 1.117.059 pertsonakoa da.

¹ Datuen aurkezpena sinplifikatzeko, ia-langabeen kolektiboa langabeen kolektiboaren barruan sartu da BAKIn.

PRESTAKUNTZA ARAUTUAREN MAILA

BAKIn, egindako ikasketa-mailarik handiena aipatzen da prestakuntza arautuaren mailan, eta titulu ofizialik handiena hartzen da kontuan. Hauek dira azpimarratu beharreko emaitza nagusiak:

1. Bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dira nagusi biztanleria aktiboaren artean

Oraindik ere gutxiengoa diren arren, hirugarren mailako ikasketak edo bigarren mailako goi-mailako lanbide-ikasketak dituzten pertsonak EAEko biztanleria aktiboaren % 49,2 izan dira 2011n, biztanleria aktibo osoko multzorik handiena, alegia². Kolektibo horren barruan, % 20,8k goi-mailako lanbide-heziketako tituluren bat dauka, eta % 28,4k, unibertsitate-tituluren bat (% 11,8k hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak, eta % 16,6k, hirugarren mailako goi-mailako ikasketak). Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleak (guztizkoaren % 13,3) kontuan hartzen baditugu, berriz, bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria gehiago bihurtzen da, biztanleria aktiboaren % 62,5 osatzen baitu. Erdi-mailako lanbide-heziketako titulua dutenak (guztizkoaren % 9,6) gehituz gero, proportzio hori % 72,1era igotzen da. Beraz, EAEko biztanleria aktiboan, hamarretik zazpi baino zertxobait gehiagok lehen mailako ikasketak baino maila handiagoko nolabaiteko prestakuntza arautua izan du 2011n.

Aurreko datuek adierazten duten moduan, prestakuntza-mailarik baxuenek pisu gutxi dute Euskadin. Analfabetoak eta ikasketarik gabeko pertsonak biztanleria aktiboaren % 1,3 baino ez dira. Ikasketak dituzten eta Lehen Hezkuntza bukatzea lortu ez duten pertsonak % 3,9 dira, eta lehen mailako ikasketak bukatu dituztenak, berriz, biztanleria aktiboaren % 22,7.

Bestalde, aktibo potentzialen taldeak pertsona aktiboen taldeak baino kualifikazio-maila baxuagoa du. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak dira nagusi talde horretan (guztizkoaren % 55,8). % 4,9k erdi-mailako lanbide-heziketako tituluren bat du, % 15,7k lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak ditu, eta % 23,6k, ikasketa kualifikatuak (hirugarren mailakoak edo goi-mailako lanbide-heziketakoak).

² BAKIn, unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak ikasketa kualifikatutzat hartzen dira, oinarritzat hartzen baita prestakuntza-maila horiek dakartela prestakuntza eraginkorra eta lanbide-espezializazioa. Testuinguru horretan, ulertu behar da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak eta erdi-mailako lanbide-heziketa aipatutako lanbide-espezializazioaren hasierako faseak direla; beraz, ez dira ikasketa kualifikatutzat hartuko (baina bai nolabaiteko garrantzia duten prestakuntza-maila bat dakarten ikasketatzat).

2. Gaur egungo prestakuntza-egoera 90eko hamarkadaren amaierakoa baino askoz aurreratuago dago

EAEko biztanleria aktiboan ikasketa-mailen arabera egon diren aldaketen epe luzeko azterketak erakusten du askoz prestakuntza-egitura kualifikatuago baterantz ari garela aurrera egiten.

Alde batetik, prestakuntza-maila baxuena duten aktiboaren bolumenak behera egin du: lehen mailako ikasketarik ez duen biztanleria % 28,6 jaitsi da 1999tik eta 2011ra bitartean; lehen mailako ikasketak dituzten edo bigarren mailakoak amaitu gabe dituzten pertsona aktiboaren gainbehera ere handia da, baina ez hainbestekoa (% -9,9).

Bestalde, 1999tik 2011ra bitartean, % 9,4 igo da erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonen kopurua, eta % 10,1, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenena. Nolanahi ere, igoerarik handiena ikasketa kualifikatuak dituzten pertsona aktiboena izan da. Izan ere, goi-mailako lanbide-heziketako titulua edo hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen bolumena % 39,3 hazi da, biztanleria aktiboan, 1999tik 2011ra bitartean. Hirugarren mailako tituluren bat duten pertsonen proportzioa hazi da gehien, batez ere erdi-mailako tituluren bat dutenena (% 48,4, zehazki; % 40,6 goi-mailako unibertsitate-ikasketen kasuan, eta % 33,6 goi-mailako lanbide-heziketa duten pertsonen kasuan).

Aurreko datuek erakusten dutenez, zenbat eta handiagoa izan pertsona aktiboaren prestakuntza-maila, orduan eta bilakaera hobea –edo ez horren txarra– du haien bolumenak. Argi ikus daiteke alde handia dagoela lanbide-heziketako ikasketak, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo unibertsitateko ikasketak dituztenen egoeraren –horien biztanleria-bolumena igo egin da 1999-2011 aldian– eta ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituztenen egoeraren artean –azken horiek gero eta gutxiago dira, nabarmen, aipatutako aldian–.

Joera horien ondorioz, 1999tik 2011ra bitartean nabarmen aldatu da biztanleria aktiboaren banaketa. 1999an, biztanleria horren % 36,6k lehen mailako ikasketak zituen gehienez ere (erdi-mailako lanbide-heziketarik gabe edo bigarren mailako ikasketak amaitu gabe). Kopuru hori goi-mailako lanbide-heziketako edo unibertsitateko ikasketa kualifikatuak zituenena (% 39,8) baino 3,2 puntu gutxiago soilik zen. Gainerako % 23,5ak erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo bigarren mailako lanbide-ikasketak zituen. 2011n, ordea, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen pisua % 49,2 da, gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonena (% 27,9) baino 21,2 puntu gehiago. Erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo bigarren mailako lanbide-ikasketak dituen tarteko kolektiboaren pisu erlatiboa (% 22,9), berriz, lehengo bera da gutxi gorabehera.

3. Nolanahi ere, prestakuntza-maila hobetzen joateko prozesu horrek geldialdi bat izan du 2007tik 2011ra bitartean

Nolanahi ere, biztanleria aktiboaren barruko banaketan ikasketa-mailaren arabera ikusi ahal izan dugun aldaketa nabarmen hori 1999tik 2007ra bitartean gertatu zen, batez ere 2003-2007 laurtekoan, eta 2007tik 2011ra bitartean araututako prestakuntzaren mailak geldialdi nabarmena izan du.

Aldaketa hori oso ongi ikusten da Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren (PAIS)³ bilakaerari erreparatuz gero. Izan ere, 1999an biztanleria aktiboaren PAIS 3,34 zen, eta 2003an 3,41era igo zen. Gero beste goranzko jauzi handi bat egin zuen, eta 2007an 3,64ra iritsi zen, mailarik handienara. 2011n, ordea, adierazleak geldialdi bat izan du, bai eta beheranzko joera txiki bat ere, eta 3,63an geratu da.

3.1. Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria aktiboa egonkortu egin da

EAEko biztanleria aktiboaren batez besteko prestakuntza arautuaren mailan egondako aurrerapen etengabe hori hautsi izana azaltzen duen faktore nagusia da 2007tik 2011ra bitartean egonkortu egin dela hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopurua. Prestakuntza-maila hori zuen biztanleria aktiboa % 10,8 igo zen 1999tik 2003ra bitartean, eta % 25,6 2003tik 2007ra bitartean, baina 2007tik 2011ra bitartean % 1 soilik igo da. Termino absolututan, 1999an 131.615 pertsona izatetik 2007an 183.196 pertsona izatera igaro ziren, baina kopurua 185.075 pertsonara soilik igo da 2011n⁴.

Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopuruan izandako egonkortze horrekin batera, biztanleria aktiboaren bolumen orokorra % 10,3 igo da 2007tik 2011ra bitartean. Hori dela eta, hirugarren mailako unibertsitate-ikasketak dituztenek biztanleria aktiboan duten pisua 2007an (% 18,1) baino baxuagoa izan da 2011n (% 16,6).

³ Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa honako formula honen bidez kalkulatzen da BAKIn: $(Ax0 + IGx1 + LMBGx1,5 + Llx2 + BMBGx2 + LHlx3 + LBMx3 + LHllx4 + ERDx5 + GOIx6) /$ erreferentziako biztanleria
Osagaiak honako hauek izanik: A: Analfabetoak; Ikasketarik gabeak; LMBG: Lehen mailakoak bukatu gabe; LI: Lehen mailako ikasketak; BMBG: Bigarren mailakoak bukatu gabe; LHI: LH I / erdi mailako LH; LBM: Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak; LHII: LH II / goi-mailako LH; ERD: Hirugarren mailako erdi-mailakoak; GOI: Hirugarren mailako goi-mailakoak.

⁴ Aipatutako egonkortze horren jatorria aztertzean –azterketa osagarrietan–, kontuan hartu behar dira, besteak beste, honako bi faktore hauek: a) Prestakuntza-maila handia duten talde batzuk irten egin dira EAEko lan-merkatutik, bai atzerrira joan direlako, bai prestakuntza birziklatu behar izan dutelako, bai eta erretiroa hartu dutelako ere, aurreratua izan edo ez, eta b) jaiotza-tasan izandako beherakadak eragina izan du ikasketa kualifikatuak egiteko aukera duten biztanle-talde berrien bolumenean.

3.2. Ikasketa kualifikaturik gabeko biztanleria aktiboaren bolumenak, berriz, gora egin du

Ikasketa kualifikaturik gabeko biztanleriak biztanleria aktiboan duen bolumenak gora egin du azkeneko lau urteetan. 1999an 596.139 pertsona zeuden egoera horretan, eta 2007an 516.642 pertsona; hau da, kopuruak beherantz egin zuen etengabe. Nolanahi ere, gero kopuruak gora egin du, 2011n 567.929 pertsona egon baitira egoera horretan. Nahiz eta igoera horren zati handi bat erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonekin lotuta dagoen (egoera horretan zeuden pertsonak 213.508 izatetik 256.026 izatera igaro dira 2007-2011 laurtekoan) eta lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen bolumenak behera egin duen tarte horretan (264.929tik 254.026ra), prestakuntza arautuaren maila baxuenek gora egin dute. Izan ere, 1999tik 2007ra bitartean lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa 81.076 pertsonatik 38.205 pertsonara jaitsi bazen ere, 2011n gora egin du eta 57.876 pertsonara iritsi da⁵.

3.3. Goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak eta hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopuruak gora egin izanak soilik ematen du EAEn prestakuntza arautuaren batez besteko mailari eusteko aukera

Kontuan hartuta goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria aktiboa egonkortu egin dela, aurreko puntuan adierazitako prozesuak PAISen balioa bederatzi ehunen jaistea ekarriko luke. Nolanahi ere, 1999. urtetik aurrera, goi-mailako lanbide-ikasketak eta hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten pertsonen bolumenaren goranzko joera finkatu da, eta horrek zortzi ehunenetan konpentsatu du beherakada. Izan ere, kolektibo horrek etengabe egin du gorantz; 1999. urtean 262.680 pertsona ziren, eta 2011. urtean, 364.055 pertsona (biztanleria aktiboaren % 26,5etik % 32,6ra igo da, termino erlatibotan, aztertutako denbora-tartean). Dena den, aipatu behar da erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituen biztanleriaren hazkunde-erritmoa moteldu egin dela; 2003tik 2007ra bitartean, % 35,5 egin zuen gora, eta 2007tik 2011ra bitartean, % 18,1.

3.4. 2007tik 2011ra bitartean, Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoak behera egin du 25-29 urteko eta 40-44 urteko gizon eta emakumeetan, bai eta 55 urteko edo gehiagoko gizonetan eta 25 urtetik beherako emakumeetan ere. Emakumeen artean, PAIS asko jaistea eragin du prozesu horrek.

PAISen bilakaera sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, alderdi garrantzitsu hauek ikus daitezke:

* Biztanleria aktiboko gizonen kasuan, argi ikus daiteke 2007tik 2011ra bitartean PAISen balioa egonkortu egin dela (2011n 3,49 eta 2007an 3,48). Biztanleria aktiboko emakumeen

⁵ Kasu honetan, etorkizunean egingo diren azterketa osagarrietan, beharrezkoa izango da aztertzea prozesu horren zer zati dagoen lotuta prestakuntza arautuaren maila baxua duen biztanleria ez-aktiboa EAeko lan-merkatuan sartzearekin eta zer zatik izan dezakeen lotura kanpoko immigrazioarekin.

kasuan, ordea, 1999tik 2007ra bitartean PAIS 3,51tik 3,85era igo ondoren, prestakuntza arautuaren adierazleak behera egin du emakume aktiboen artean, 3,79 izan baita 2011n. Hala eta guztiz ere, gizon aktiboen mailaren (3,49) gainetik dago nabarmen.

* Bilakaera adin-taldeka aztertzen badugu ere, desberdintasunak daudela ikusiko dugu. PAIS egonkortu egin da honako hauen artean: 25 urtetik beherako biztanleria (2007an 3,45 eta 2011n 3,46), 35-39 urtekoa (2007an 3,71 eta 2011n 3,73) eta 55 urtetik gorakoa (2007an 3,24 eta 2011n 3,26). Beste adin-talde batzuetan, prestakuntza arautuaren adierazleak igotzen jarraitu du. Honako hauetan, zehazki: 30-34 urteko biztanlerian (3,96tik 4,09ra) eta 45-54 urtekoan (3,38tik 3,52ra 45-49 urtekoen artean eta 3,25etik 3,34ra 50-54 urtekoen artean). Beherakadek, berriz, 25-29 urteko pertsonen (4,06tik 3,98ra) eta 40-44 urtekoen (3,74tik 3,52ra) eragin diete.

Bilakaera horren ondorio garrantzitsuenetako bat da, lehenengo aldiz 1999. urtetik, 2011n 30-34 urteko pertsonen izan dutela PAISen mailarik altuena –gizonek nahiz emakumeek–, eta 25-29 urtekoak gainditu dituztela (3,77tik 3,80ra igo da gizonen kasuan, eta 4,20tik 4,41era emakumeen kasuan). Dena den, 2007an ere suma zitekeen aldaketa hori biztanleria aktiboko emakumeen artean; izan ere, 30-34 urtekoen PAIS 4,34 zen, eta 25-29 urtekoena, 4,32.

Bi aldagaiak batera hartzen baditugu kontuan, ikus daiteke 2007tik 2011ra bitartean 25-29 urteko pertsonen artean eta 40-44 urteko pertsonen artean izandako beherakadak bi sexuei eragiten diela eta bi kasuetan intentsitatea oso antzekoa dela. Era berean, behera egiten dute 55 urtetik gorako gizonen PAISek (3,35etik 3,27ra) eta 25 urtetik beherako emakumeen PAISek (3,87tik 3,48ra).

30-34 urtekoen eta 45-49 urtekoen artean, berriz, gizonen nahiz emakumeen kualifikazio-mailak gorantz egiten jarraitzen du epe luzera. Epe luzera hobetzen joateko prozesu horrek 50 urtetik gorako emakumei eta 16-24 urteko gizonei ere eragiten die.

35-39 urteko gizonak eta emakumeak eta 50-54 urteko gizonak tarteko egoeran daude, PAISen balioa egonkortu egin baitaie 2007-2011 laurtekoan.

3.5. Immigrazio berrienak beheranzko presioa egiten du prestakuntza arautuaren adierazlean

Estatuko herritartasuna duen biztanleriaren PAIS ere egonkortu den arren (2007an 3,65 eta 2011n 3,67), esan behar da immigrazio berrienak eragin negatiboa izan duela EAeko biztanleria aktiboaren prestakuntza arautuaren batez besteko mailan. Izan ere, biztanleria aktiboko atzeritarren PAIS 3,28tik 3,45era igo zen 2003tik 2007ra bitartean, baina kopuru hori 3,01era jaitsi da 2011n.

Prestakuntza arautuari buruzko taulen eranskina

1.1 taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Absolutuak	% bertikalak
Analfabetoak	5.061	0,5
Ikasketarik gabe	9.154	0,8
Lehen mailakoak amaitu gabe	43.662	3,9
Lehen mailako ikasketarik gabe	57.876	5,2
Lehen mailakoak	236.784	21,2
Bigarren mailakoak amaitu gabe	17.243	1,5
Lehen mailako ikasketak	254.026	22,7
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	106.950	9,6
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	149.076	13,3
Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	256.026	22,9
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	232.132	20,8
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	131.923	11,8
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	185.075	16,6
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	549.130	49,2
Guztira	1.117.059	100

1.2 taula
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera
(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak)

Prestakuntza-maila	Datu absolutuak				Hazkunde-tasak			
	1999	2003	2007	2011	99-03 %	03-07 %	07-11 %	99-11 %
Analfabetoak	1.952	1.854	1.294	5.061	-5,0	-30,2	291,2	159,3
Ikasketarik gabe	5.107	4.117	6.500	9.154	-19,4	57,9	40,8	79,2
Lehen mailakoak amaitu gabe	74.017	51.724	30.412	43.662	-30,1	-41,2	43,6	-41,0
Lehen mailako ikasketarik gabe	81.076	57.695	38.205	57.876	-28,8	-33,8	51,5	-28,6
Lehen mailakoak	240.045	256.274	243.644	236.784	6,8	-4,9	-2,8	-1,4
Bigarren mailakoak amaitu gabe	41.788	38.381	21.285	17.243	-8,2	-44,5	-19,0	-58,7
Lehen mailako ikasketak	281.832	294.654	264.929	254.026	4,5	-10,1	-4,1	-9,9
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	97.794	89.174	88.593	106.950	-8,8	-0,7	20,7	9,4
Lanbidekoak ez diren big. mailakoak	135.436	132.428	124.915	149.076	-2,2	-5,7	19,3	10,1
Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. m.	233.230	221.603	213.508	256.026	-5,0	-3,7	19,9	9,8
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	173.777	194.206	201.137	232.132	11,8	3,6	15,4	33,6
Hirugarren mailako erdi-mailako ikas.	88.902	82.455	111.746	131.923	-7,3	35,5	18,1	48,4
Hirugarren mailako goi-mailako ikas.	131.615	145.805	183.196	185.075	10,8	25,6	1,0	40,6
Goi-mailako LH / hirug. mailakoak	394.295	422.466	496.078	549.130	7,1	17,4	10,7	39,3
Guztira	990.434	996.418	1.012.720	1.117.059	0,6	1,6	10,3	12,8

1.3.a taula
Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera
(% bertikalak)

Prestakuntza-maila	Urtea			
	1999	2003	2007	2011
	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.
Analfabetoak	0,2	0,2	0,1	0,5
Ikasketarik gabe	0,5	0,4	0,6	0,8
Lehen mailakoak amaitu gabe	7,5	5,2	3,0	3,9
Lehen mailako ikasketarik gabe	8,2	5,8	3,8	5,2
Lehen mailakoak	24,2	25,7	24,1	21,2
Bigarren mailakoak amaitu gabe	4,2	3,9	2,1	1,5
Lehen mailako ikasketak	28,5	29,6	26,2	22,7
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	9,9	8,9	8,7	9,6
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	13,7	13,3	12,3	13,3
Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren big. mail.	23,5	22,2	21,1	22,9
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	17,5	19,5	19,9	20,8
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	9,0	8,3	11,0	11,8
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	13,3	14,6	18,1	16,6
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	39,8	42,4	49,0	49,2
Guztira	100	100	100	100

1.3.b taula
Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera
(% bertikalak prestakuntza-talde agregatu bakoitzaren barruan)

Prestakuntza-maila	1999 % ber. talde barruan	2003 % ber. talde barruan	2007 % ber. talde barruan	2011 % ber. talde barruan
Analfabetoak	2,4	3,2	3,4	8,7
Ikasketarik gabe	6,3	7,1	17,0	15,8
Lehen mailakoak amaitu gabe	91,3	89,7	79,6	75,4
Lehen mailako ikasketarik gabe	100	100	100	100
Lehen mailakoak	85,2	87,0	92,0	93,2
Bigarren mailakoak amaitu gabe	14,8	13,0	8,0	6,8
Lehen mailako ikasketak	100	100	100	100
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	41,9	40,2	41,5	41,8
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	58,1	59,8	58,5	58,2
Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. mail.	100	100	100	100
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	44,1	46,0	40,5	42,3
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	22,5	19,5	22,5	24,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	33,4	34,5	36,9	33,7
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	100	100	100	100

1.4 taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera

Urtea	PAIS
1999	3,34
2003	3,41
2007	3,64
2011	3,63

1.5 taula

Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta sexuaren arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Gizonak		Emakumeak	
	Absolutuak	% bertikalak	Abs.	% bertikalak
Lehen mailako ikasketarik gabe	32.187	5,3	25.690	5,0
Lehen mailako ikasketak	148.782	24,7	105.244	20,5
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	59.184	9,8	47.766	9,3
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	83.560	13,9	65.516	12,8
Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. mail.	142.744	23,7	113.282	22,0
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	147.503	24,5	84.629	16,5
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	44.702	7,4	87.221	17,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	87.322	14,5	97.753	19,0
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	279.527	46,3	269.603	52,5
Guztira	603.241	100	513.818	100

1.6 taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, sexuaren arabera

Urtea	PAIS	
	Gizonak	Emakumeak
1999	3,22	3,51
2003	3,30	3,57
2007	3,48	3,85
2011	3,49	3,79

1.7.a taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak)

Prestakuntza-maila	16-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	40-44 urte	45-49 urte	50-54 urte	55 urte eta gehiago
Lehen mailako ikasketarik gabe	4.015	6.113	836	7.731	11.851	8.586	10.712	8.032
Lehen mailako ikasketak	5.397	16.284	25.081	31.583	37.555	38.587	44.822	54.717
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	11.792	15.667	12.217	12.048	20.442	14.897	12.121	7.767
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	17.747	17.498	16.507	22.023	17.858	18.700	20.498	18.245
Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. mail.	29.539	33.165	28.724	34.071	38.300	33.597	32.618	26.012
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	12.322	29.366	35.535	47.217	41.057	24.310	20.801	21.525
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	4.166	18.998	26.570	18.826	18.165	17.544	15.106	12.549
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	6.812	31.601	34.350	26.831	23.004	23.341	20.069	19.066
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	23.300	79.964	96.455	92.874	82.225	65.195	55.977	53.140
Guztira	62.251	135.526	151.096	166.259	169.932	145.965	144.129	141.901

1.7.b taula
Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta adinaren arabera
(% bertikalak)

Prestakuntza-maila	16-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	40-44 urte	45-49 urte	50-54 urte	55 urte eta gehiago
Lehen mailako ikasketarik gabe	6,4	4,5	0,6	4,6	7,0	5,9	7,4	5,7
Lehen mailako ikasketak	8,7	12,0	16,6	19,0	22,1	26,4	31,1	38,6
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	18,9	11,6	8,1	7,2	12,0	10,2	8,4	5,5
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	28,5	12,9	10,9	13,2	10,5	12,8	14,2	12,9
Erdi-mail. LH / lanb. ez diren big. mail.	47,5	24,5	19,0	20,5	22,5	23,0	22,6	18,3
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	19,8	21,7	23,5	28,4	24,2	16,7	14,4	15,2
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	6,7	14,0	17,6	11,3	10,7	12,0	10,5	8,8
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	10,9	23,3	22,7	16,1	13,5	16,0	13,9	13,4
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	37,4	59,0	63,8	55,9	48,4	44,7	38,8	37,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

1.8.a taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren arabera

Adina	1999	2003	2007	2011
16-24 urte	3,29	3,41	3,45	3,46
25-29 urte	3,82	3,93	4,06	3,98
30-34 urte	3,64	3,79	3,96	4,09
35-39 urte	3,59	3,54	3,71	3,73
40-44 urte	3,19	3,43	3,74	3,52
45-49 urte	3,09	3,06	3,38	3,52
50-54 urte	2,88	2,95	3,25	3,34
55 urte eta gehiago	2,64	2,72	3,24	3,26

1.8.b taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera

Gizonak

Adina	1999	2003	2007	2011
16-24 urte	3,13	3,23	3,15	3,45
25-29 urte	3,60	3,73	3,86	3,77
30-34 urte	3,47	3,58	3,61	3,80
35-39 urte	3,40	3,43	3,46	3,48
40-44 urte	3,19	3,34	3,63	3,43
45-49 urte	3,06	3,04	3,29	3,43
50-54 urte	2,92	2,98	3,26	3,29
55 urte eta gehiago	2,78	2,87	3,35	3,27

1.8.c taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera

Emakumeak

Adina	1999	2003	2007	2011
16-24 urte	3,49	3,66	3,87	3,48
25-29 urte	4,06	4,17	4,32	4,20
30-34 urte	3,85	4,03	4,34	4,41
35-39 urte	3,80	3,69	4,01	3,99
40-44 urte	3,20	3,56	3,89	3,65
45-49 urte	3,13	3,09	3,49	3,63
50-54 urte	2,77	2,89	3,23	3,39
55 urte eta gehiago	2,32	2,43	3,01	3,24

1.9.a taula

Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak)

Prestakuntza-maila	< 35	35-44	>= 45	< 35	35-44	>= 45
	urteko gizonak	urteko gizonak	urteko gizonak	urteko emakum.	urteko emakum.	urteko emakum.
Lehen mailako ikasketarik gabe	6.561	12.844	12.782	4.403	6.738	14.549
Lehen mailako ikasketak	30.052	40.292	78.438	16.710	28.846	59.688
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	20.952	18.966	19.266	18.724	13.524	15.518
Lanbidekoak ez diren big. mailakoak	26.363	20.542	36.655	25.389	19.340	20.787
Erdi-m. LH / lanb. ez diren big. m.	47.315	39.508	55.922	44.113	32.864	36.305
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	49.161	54.573	43.769	28.062	33.701	22.867
Hirugarren mailako erdi-mailako ikas.	15.984	12.065	16.653	33.750	24.926	28.546
Hirugarren mailako goi-mailako ikas.	30.814	21.965	34.544	41.949	27.871	27.933
Goi-mailako LH / hirug. mailakoak	95.959	88.603	94.966	103.761	86.497	79.346
Guztira	179.887	181.246	242.107	168.986	154.944	189.888

1.9.b taula

Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak)

Prestakuntza-maila	< 35	35-44	>= 45	< 35	35-44	>= 45
	urteko gizonak	urteko gizonak	urteko gizonak	urteko emaku.	urteko emaku.	urteko emaku.
Lehen mailako ikasketarik gabe	3,6	7,1	5,3	2,6	4,3	7,7
Lehen mailako ikasketak	16,7	22,2	32,4	9,9	18,6	31,4
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	11,6	10,5	8,0	11,1	8,7	8,2
Lanbidekoak ez diren big. mailakoak	14,7	11,3	15,1	15,0	12,5	10,9
Erdi-m. LH / lanb. ez diren big. m.	26,3	21,8	23,1	26,1	21,2	19,1
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	27,3	30,1	18,1	16,6	21,8	12,0
Hirugarren mailako erdi-mailako ikas.	8,9	6,7	6,9	20,0	16,1	15,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikas.	17,1	12,1	14,3	24,8	18,0	14,7
Goi-mailako LH / hirug. mailakoak	53,3	48,9	39,2	61,4	55,8	41,8
Guztira	100	100	100	100	100	100

1.10.a taula
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(Datu absolutuak)

Sexua eta adina		Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak	LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	Erdi-mailako	LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	Hirug. mailako erdi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	Guztira
						LH / lanb. ez diren big. m.					
< 35 urteko gizonak	1999	12.299	60.788	27.314	34.933	62.248	64.100	11.591	30.308	105.999	241.334
	2003	8.384	44.649	22.374	33.747	56.121	64.577	12.270	29.311	106.158	215.311
	2007	5.405	44.659	22.369	29.261	51.630	50.900	15.746	31.881	98.526	200.220
	2011	6.561	30.052	20.952	26.363	47.315	49.161	15.984	30.814	95.959	179.887
35-44 urteko gizonak	1999	7.960	48.513	15.961	25.020	40.981	24.519	8.936	20.612	54.067	151.522
	2003	7.996	49.969	16.307	17.098	33.405	33.013	10.821	22.824	66.658	158.028
	2007	5.550	47.083	15.263	17.154	32.417	39.070	15.067	25.944	80.081	165.132
	2011	12.844	40.292	18.966	20.542	39.508	54.573	12.065	21.965	88.603	181.246
>= 45 urteko gizonak	1999	29.927	70.902	10.297	23.659	33.956	21.448	10.329	20.335	52.112	186.898
	2003	17.172	90.592	12.673	23.909	36.582	30.954	9.442	19.866	60.262	204.609
	2007	11.773	81.609	11.722	26.289	38.010	38.285	14.772	32.760	85.817	217.210
	2011	12.782	78.438	19.266	36.655	55.922	43.769	16.653	34.544	94.966	242.107
< 35 urteko emakum.	1999	6.306	37.908	25.917	27.377	53.294	43.869	29.874	38.399	112.141	209.649
	2003	3.281	27.108	13.840	30.786	44.626	36.893	20.457	44.838	102.187	177.203
	2007	4.036	13.469	16.557	20.611	37.168	33.681	31.298	42.523	107.502	162.175
	2011	4.403	16.710	18.724	25.389	44.113	28.062	33.750	41.949	103.761	168.986
35-44 urteko emakum.	1999	6.236	31.797	12.768	12.489	25.257	15.077	17.747	16.624	49.448	112.738
	2003	4.638	33.740	15.327	11.938	27.264	18.164	18.496	21.082	57.742	123.384
	2007	2.905	27.810	11.257	13.626	24.883	24.422	17.292	32.137	73.852	129.449
	2011	6.738	28.846	13.524	19.340	32.864	33.701	24.926	27.871	86.497	154.944
>= 45 urteko emakum.	1999	18.347	31.924	5.537	11.958	17.495	4.764	10.426	5.338	20.527	88.293
	2003	16.224	48.597	8.654	14.950	23.604	10.605	10.970	7.883	29.458	117.883
	2007	8.537	50.299	11.425	17.974	29.399	14.778	17.571	17.951	50.299	138.535
	2011	14.549	59.688	15.518	20.787	36.305	22.867	28.546	27.933	79.346	189.888
Guztira	1999	81.076	281.832	97.794	135.436	233.230	173.777	88.902	131.615	394.295	990.434
	2003	57.695	294.654	89.174	132.428	221.603	194.206	82.455	145.805	422.466	996.418
	2007	38.205	264.929	88.593	124.915	213.508	201.137	111.746	183.196	496.078	1.012.720
	2011	57.876	254.026	106.950	149.076	256.026	232.132	131.923	185.075	549.130	1.117.059

1.10.b taula
Biztanleria aktiboaren banaketaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(% horizontalak)

Sexua eta adina		Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak	LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. m.	LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	Hirug. mailako erdi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	Guztira
< 35 urteko gizonak	1999	5,1	25,2	11,3	14,5	25,8	26,6	4,8	12,6	43,9	100
	2003	3,9	20,7	10,4	15,7	26,1	30,0	5,7	13,6	49,3	100
	2007	2,7	22,3	11,2	14,6	25,8	25,4	7,9	15,9	49,2	100
	2011	3,6	16,7	11,6	14,7	26,3	27,3	8,9	17,1	53,3	100
35-44 urteko gizonak	1999	5,3	32,0	10,5	16,5	27,0	16,2	5,9	13,6	35,7	100
	2003	5,1	31,6	10,3	10,8	21,1	20,9	6,8	14,4	42,2	100
	2007	3,4	28,5	9,2	10,4	19,6	23,7	9,1	15,7	48,5	100
	2011	7,1	22,2	10,5	11,3	21,8	30,1	6,7	12,1	48,9	100
>= 45 urteko gizonak	1999	16,0	37,9	5,5	12,7	18,2	11,5	5,5	10,9	27,9	100
	2003	8,4	44,3	6,2	11,7	17,9	15,1	4,6	9,7	29,5	100
	2007	5,4	37,6	5,4	12,1	17,5	17,6	6,8	15,1	39,5	100
	2011	5,3	32,4	8,0	15,1	23,1	18,1	6,9	14,3	39,2	100
< 35 urteko emakum.	1999	3,0	18,1	12,4	13,1	25,4	20,9	14,2	18,3	53,5	100
	2003	1,9	15,3	7,8	17,4	25,2	20,8	11,5	25,3	57,7	100
	2007	2,5	8,3	10,2	12,7	22,9	20,8	19,3	26,2	66,3	100
	2011	2,6	9,9	11,1	15,0	26,1	16,6	20,0	24,8	61,4	100
35-44 urteko emakum.	1999	5,5	28,2	11,3	11,1	22,4	13,4	15,7	14,7	43,9	100
	2003	3,8	27,3	12,4	9,7	22,1	14,7	15,0	17,1	46,8	100
	2007	2,2	21,5	8,7	10,5	19,2	18,9	13,4	24,8	57,1	100
	2011	4,3	18,6	8,7	12,5	21,2	21,8	16,1	18,0	55,8	100
>= 45 urteko emakum.	1999	20,8	36,2	6,3	13,5	19,8	5,4	11,8	6,0	23,2	100
	2003	13,8	41,2	7,3	12,7	20,0	9,0	9,3	6,7	25,0	100
	2007	6,2	36,3	8,2	13,0	21,2	10,7	12,7	13,0	36,3	100
	2011	7,7	31,4	8,2	10,9	19,1	12,0	15,0	14,7	41,8	100
Guztira	1999	8,2	28,5	9,9	13,7	23,5	17,5	9,0	13,3	39,8	100
	2003	5,8	29,6	8,9	13,3	22,2	19,5	8,3	14,6	42,4	100
	2007	3,8	26,2	8,7	12,3	21,1	19,9	11,0	18,1	49,0	100
	2011	5,2	22,7	9,6	13,3	22,9	20,8	11,8	16,6	49,2	100

1.10.c taula
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera
(1999-2011 hazkunde-tasa)

Sexua eta adina		Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak	LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	Erdi-mailako LH / lanb. ez diren big. m.	LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	Hirug. mailako erdi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	Guztira
< 35 urteko gizonak	99-03 %	-31,8	-26,5	-18,1	-3,4	-9,8	0,7	5,9	-3,3	0,1	-10,8
	03-07 %	-35,5	0,0	0,0	-13,3	-8,0	-21,2	28,3	8,8	-7,2	-7,0
	07-11 %	21,4	-32,7	-6,3	-9,9	-8,4	-3,4	1,5	-3,3	-2,6	-10,2
	99-11 %	-46,7	-50,6	-23,3	-24,5	-24,0	-23,3	37,9	1,7	-9,5	-25,5
35-44 urteko gizonak	99-03 %	0,4	3,0	2,2	-31,7	-18,5	34,6	21,1	10,7	23,3	4,3
	03-07 %	-30,6	-5,8	-6,4	0,3	-3,0	18,3	39,2	13,7	20,1	4,5
	07-11 %	131,4	-14,4	24,3	19,7	21,9	39,7	-19,9	-15,3	10,6	9,8
	99-11 %	61,4	-16,9	18,8	-17,9	-3,6	122,6	35,0	6,6	63,9	19,6
>= 45 urteko gizonak	99-03 %	-42,6	27,8	23,1	1,1	7,7	44,3	-8,6	-2,3	15,6	9,5
	03-07 %	-31,4	-9,9	-7,5	10,0	3,9	23,7	56,4	64,9	42,4	6,2
	07-11 %	8,6	-3,9	64,4	39,4	47,1	14,3	12,7	5,4	10,7	11,5
	99-11 %	-57,3	10,6	87,1	54,9	64,7	104,1	61,2	69,9	82,2	29,5
< 35 urteko emakum.	99-03 %	-48,0	-28,5	-46,6	12,5	-16,3	-15,9	-31,5	16,8	-8,9	-15,5
	03-07 %	23,0	-50,3	19,6	-33,1	-16,7	-8,7	53,0	-5,2	5,2	-8,5
	07-11 %	9,1	24,1	13,1	23,2	18,7	-16,7	7,8	-1,3	-3,5	4,2
	99-11 %	-30,2	-55,9	-27,8	-7,3	-17,2	-36,0	13,0	9,2	-7,5	-19,4
35-44 urteko emakum.	99-03 %	-25,6	6,1	20,0	-4,4	7,9	20,5	4,2	26,8	16,8	9,4
	03-07 %	-37,4	-17,6	-26,6	14,1	-8,7	34,5	-6,5	52,4	27,9	4,9
	07-11 %	132,0	3,7	20,1	41,9	32,1	38,0	44,1	-13,3	17,1	19,7
	99-11 %	8,0	-9,3	5,9	54,9	30,1	123,5	40,5	67,7	74,9	37,4
>= 45 urteko emakum.	99-03 %	-11,6	52,2	56,3	25,0	34,9	122,6	5,2	47,7	43,5	33,5
	03-07 %	-47,4	3,5	32,0	20,2	24,6	39,3	60,2	127,7	70,7	17,5
	07-11 %	70,4	18,7	35,8	15,6	23,5	54,7	62,5	55,6	57,7	37,1
	99-11 %	-20,7	87,0	180,3	73,8	107,5	380,0	173,8	423,3	286,5	115,1
Guztira	99-03 %	-28,8	4,5	-8,8	-2,2	-5,0	11,8	-7,3	10,8	7,1	0,6
	03-07 %	-33,8	-10,1	-0,7	-5,7	-3,7	3,6	35,5	25,6	17,4	1,6
	07-11 %	51,5	-4,1	20,7	19,3	19,9	15,4	18,1	1,0	10,7	10,3
	99-11 %	-28,6	-9,9	9,4	10,1	9,8	33,6	48,4	40,6	39,3	12,8

1.11 taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

Sexua eta adina	1999	2003	2007	2011
< 35 urteko gizonak	3,41	3,56	3,62	3,73
35-44 urteko gizonak	3,29	3,39	3,55	3,45
>= 45 urteko gizonak	2,92	2,96	3,30	3,33
< 35 urteko emakumeak	3,82	4,02	4,26	4,16
35-44 urteko emakumeak	3,52	3,63	3,95	3,82
>= 45 urteko emakumeak	2,79	2,83	3,28	3,43

1.12 taula

**Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren eta herritartasunaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Prestakuntza-maila	Estatua		Munduko gainerakoak	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lehen mailako ikasketarik gabe	45.057	4,3	12.820	17,7
Lehen mailako ikasketak	238.942	22,9	15.085	20,9
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	102.985	9,9	3.965	5,5
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	129.309	12,4	19.766	27,3
Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren big. mail.	232.294	22,2	23.732	32,8
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	224.120	21,5	8.011	11,1
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	126.608	12,1	5.315	7,4
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	177.747	17,0	7.328	10,1
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	528.475	50,6	20.655	28,6
Guztira	1.044.768	100	72.291	100

1.13 taula

Biztanleria aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, herritartasunaren arabera

Urtea	PAIS	
	Estatua	Munduko gainerakoak
2003	3,42	3,28
2007	3,65	3,45
2011	3,67	3,01

1.14 taula
Biztanleria potentzialki aktiboa, prestakuntza-mailaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Abs.	% ber.
Lehen mailako ikasketarik gabe	2.031	7,9
Lehen mailako ikasketak	12.343	47,9
LH I, erdi-mailako lanbide-heziketa	1.271	4,9
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	4.040	15,7
Erdi-mailako LH / lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	5.311	20,6
LH II, goi-mailako lanbide-heziketa	3.245	12,6
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	1.972	7,7
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	860	3,3
Goi-mailako LH / hirugarren mailakoak	6.076	23,6
Guztira	25.762	100

1.15 taula
Biztanleria potentzialki aktiboa: Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera

Urtea	PAIS
2003	2,66
2007	2,94
2011	2,77

PRESTAKUNTZA ARAUTUA ETA LANERATZEA

Krisi ekonomikoak goranzko joera nabarmen bat eragin du biztanleria aktiboaren langabezia-tasetan eta ez-okupazio tasetan. Izan ere, ez-okupazio tasa % 16,8tik % 5,9ra jaitsi zen 1999tik 2007ra bitartean, baina gero izugarri egin du gorantz, eta 2011n % 15,6 izan da; hau da, 1999koaren antzekoa⁶. Beraz, interesgarria da aztertzea zer eragin izan duen okupazio-krisiak, prestakuntza arautuaren mailaren arabera.

4. 2011n, maila handiko prestakuntza arautua izateak laneratze-aukera handiagoak edukitzeko balio izan du oro har

Nahiz eta badiren aipatu beharreko ñabardura batzuk, 2011n azpimarratu beharreko alderdi nagusia da prestakuntza arautuaren maila handienetan diharduen biztanleria aktiboak bestelako prestakuntza-maila duenak baino laneratze-maila hobeak izan dituela.

4.1. Ikus daiteke korrelazio positibo bat dagoela prestakuntza arautuaren mailaren eta laneratze jarraituaren artean

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da prestakuntza arautuaren mailak oro har lotura positibo estua duela laneratze jarraituarekin. 2011n, hiru urteko edo gehiagoko lanpostu jarraitu bat duten pertsonen proportzioa % 55,8 izan da (mailarik baxuena) lehen mailako ikasketarik gabeko pertsonen artean, eta % 66 inguru, lehen mailako ikasketak edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 65,9 eta % 66,1, hurrenez hurren). Ikasketa kualifikatuak (goi-mailako lanbide-heziketa edo hirugarren mailako ikasketak) dituzten pertsonak izan dituzte tasarik altuenak; % 69tik % 70era bitartekoak, hain zuzen.

Lotura hori are nabarmenagoa da, kontuan hartzen badugu teknologia modernoa erabiltzen duten lanpostuetan 3 urteko edo gehiagoko lan jarraitua eskuratzeko aukeren aldagaia. Hauek dira horrelako lanpostuak eskuratzen dituztenen ehunekoak: % 21,9 lehen mailako ikasketarik gabekoen artean; % 32,7 lehen mailako ikasketak dituztenen artean; % 35,5 erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean; % 41,8 lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen artean; % 50,6 goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean, eta % 55etik gora hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 56,3 erdi-mailako ikasketen kasuan eta % 60,9 goi-mailako tituludunen kasuan).

⁶ Ez-okupazio tasak adierazten du zer pisu erlatibo duten lan egiten ez duten pertsonak erreferentziako biztanlerian (BAKIn kasuan, biztanleria aktiboan edo biztanleria potentzialki aktiboan). Estatistikan biztanleria aktiboaren kontzeptu zabala erabili denez, adierazleak ematen dituen emaitzak ez dira LANEren langabezia-tasen berdin-berdinak; ez-okupazio tasa zertxobait altuagoa da.

4.2. Hori dela eta, ez-okupazio tasak baxuagoak dira maila handiko prestakuntza arautua duten pertsonen artean

Aurkeztutako kopuruen haritik, 2011n ikus daiteke lan egiten ez duen biztanleria aktiboaren proportzioa asko jaisten dela prestakuntza arautuaren mailak gora egin ahala. Lehen mailako ikasketarik ez duten pertsonen artean, ez-okupazio tasa % 28,6 da, eta lehen mailako ikasketak edo erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean, % 20,4tik % 22,5era bitartekoa. Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, berriz, % 16,6 da, eta ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean, % 10,3; hau da, tasarik baxuena. Azkeneko talde horretan, tasa % 9,6koa da hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituztenen artean, % 9,9koa hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenen artean, eta % 11,2koa goi-mailako lanbide-heziketa ikasi dutenen artean.

4.3. Ikasketak amaitu ondoren lehenengo lanpostua berandu eskuratzen duten pertsonen proportzioa ere baxuagoa da maila handiko prestakuntza arautua duten pertsonen artean

Aipatutakoaren ildotik, prestakuntza arautuaren mailak gora egiten duen heinean, murriztu egiten da lehenengo lanpostua aurkitzeko sei hilabete edo gehiago behar izaten dituen 35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren proportzioa ere. Proportzioak honako hauek dira zehazki: % 3,3tik % 4,3ra bitartean, goi-mailako lanbide-heziketa ikasi dutenen edo hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituztenen artean; % 7,3tik % 8,1era bitartean, edozein eratako bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (lanbidekoak ez direnak edo erdi-mailako lanbide-heziketa); % 10,4, lehen mailako ikasketak dituztenen artean, eta % 32,2, hezkuntza jaso arren lehen mailako prestakuntza amaitu ez dutenen artean. Hirugarren mailako erdi-mailako titulu bat lortu duten pertsonak soilik urruntzen dira eskema horretatik, % 9,2ko tasarekin.

4.4. Bestalde, maila handiko prestakuntza arautua izateak gutxieneko kualifikazio bat eskatzen duen lanpostu bat eskuratzeko aukera handiagoa izateko balio du

Azpimarratu beharreko beste gauza bat da, prestakuntza arautuaren mailak gora egiten duen heinean, laneratze-aukerek ere gora egiten dutela. Gutxieneko kualifikazio bat eskatzen duen lanpostu bat eskuratzeko adierazlea⁷ kontuan hartzen badugu, 2011n honako hauek izan dira era horretako lanpostuak eskuratu dituzten pertsonen proportzioak: % 48,9, lehen mailako ikasketarik ez duen biztanleriaren artean; % 59,3, lehen mailako ikasketak dituztenen artean; % 70,3, bigarren mailako ikasketak dituztenen artean; % 82,4 goi-mailako lanbide-heziketako titulua dutenen artean; % 85,9, hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenen artean, eta % 88,1, goi-mailako unibertsitate-titulua dutenen artean.

⁷ Kasu honetan, zuzendari-lana, teknikari-lana, administrari-lana eta beste lanpostu kualifikatu batzuk hartu dira kontuan.

5. Prestakuntza-maila handiagoa izateak krisi garaian ez-okupazio tasa baxuagoa izaten laguntzen du

1999ko eta 2011ko biztanleria aktiboen ez-okupazio tasak alderatzen baditugu, ikus dezakegu, alde batetik, prestakuntza arautuaren abiapuntuko mailaren baitan dagoela, neurri handi batean, krisira egokitzeko gaitasuna. 2011ko ez-okupazio tasa 1999koa baino handiagoa da lehen mailako ikasketarik ez dutenen artean (1999an % 17 eta 2011n % 28,6), lehen mailako ikasketak dituztenen artean (1999an % 17,6 eta 2011n % 20,4) eta erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean (1999an % 20,4 eta 2011n % 22,5).

Alderantziz gertatzen da, ordea, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo ikasketa kualifikatuak dituztenen artean. Izan ere, lanik ez duten pertsona aktiboen proportzioa 1999an baino askoz txikiagoa izan da 2011n. Tasa 1,5 puntu jaitsi da, gutxi gorabehera, goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonen artean (1999an % 12,7 eta 2011n % 11,2) eta hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenen artean (1999an % 11,6 eta 2011n % 9,9). Ia 6 puntu jaitsi da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean (1999an % 22,3 eta 2011n % 16,6) eta goi-mailako unibertsitate-titulua dutenen artean (1999an % 15,5 eta 2011n % 9,6).

5.1. Egoera horrek lotura handia dauka lanpostu jarraitu bat eskuratzeko eta hari eusteko gaitasun handiagoa izatearekin

Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak eta ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen 2011n 1999an baino ez-okupazio tasa baxuagoa edukitzeak lotura handia dauka era horretako prestakuntza duten pertsona aktiboek lanpostu jarraitu bati eusteko gaitasun handiagoa izatearekin. Prestakuntza-maila horietan, 3 urteko edo gehiagoko lanpostu bat duten pertsonen proportzioa 14-18 puntu handiagoa izan da 2011n 1999an baino. Proportzio hori 5,5 puntura murrizten da, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, eta 1,8 puntura, erdi-mailako lanbide-heziketako titulua duten pertsonen artean. Lehen mailako ikasketarik ez duten pertsonen artean, 2011ko proportzioa 1999koa baino 12,1 puntu baxuagoa izan da.

5.2. Garrantzitsua da gizonen eta emakumeen bilakaeren arteko desberdintasunak ikustea

Bilakaera hori aztertzean kontuan hartu beharreko beste elementu bat da gizonen eta emakumeen adierazleek joera desberdinak dituztela biztanleria aktiboaren barruan. Ez-okupazio tasaren kasuan, adibidez, gizonen 2011ko tasa 1999koa baino 3,7 puntu handiagoa da (1999an % 10,7 eta 2011n % 14,4); emakumeena, berriz, 8,5 puntu baxuagoa (1999an % 25,4 eta 2011n % 16,9).

Beraz, prestakuntza arautuaren maila handiak ez-okupazio tasa baxuagoa izaten laguntze horrek ez dauka zentzu berdina gizonen eta emakumeen artean. Gizonen artean, 2011ko ez-okupazio tasak 1999koarekiko duen igoera gero eta txikiagoa bihurtzen da, ikasketak mailak gora egin ahala. Izan ere, 1999tik 2011ra bitartean, lehen mailako ikasketak edo ikasketak baxuagoak dituzten gizonen ez-okupazio tasa 9,7 puntu igo da; erdi-mailako lanbide-heziketako titulua dutenen gizonena, 4,5 puntu, eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak, goi-mailako lanbide-heziketakoak eta hirugarren mailako erdi-mailakoak dituztenena, berriz, 0,8 puntutik 2,9 puntura bitartean baino ez. Gizonen artean 2011ko ez-okupazio tasa 1999koa baino baxuagoa izatea lortu duen talde bakarra goi-mailako unibertsitate-titulua dituztenena izan da: 1,3 puntu jaitsi da, hain zuzen. 2011n gizonen artean ez-okupazio tasarik baxuena lortu duen taldea izan da.

**Biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren bilakaera, atzerriko hizkuntzak jakitearen arabera
(Datu absolutuak)**

Atzerriko hizkun. jakitea	Aktiboa				Potentzialki aktiboa		
	1999	2003	2007	2011	2003	2007	2011
Baten bat ongi edo oso on.	187.703	209.509	253.083	305.011	220.778	258.546	312.463
Baten bat hola-hala	268.498	256.543	274.339	261.092	266.609	280.583	263.931
Gaizki edo bat ere ez	534.233	530.366	485.298	550.955	563.420	501.828	566.427
Guztira	990.434	996.418	1.012.720	1.117.059	1.050.807	1.040.958	1.142.821

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo pot.

4.22.b taula

**Biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren bilakaera, atzerriko hizkuntzak jakitearen arabera
(Hazkunde-tasak)**

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Aktiboa				Potentzialki aktiboa		
	99-03 %	03-07 %	07-11 %	99-11 %	03-07 %	07-11 %	03-11 %
Baten bat ongi edo oso ongi	11,6	20,8	20,5	62,5	17,1	20,9	41,5
Baten bat hola-hala	-4,5	6,9	-4,8	-2,8	5,2	-5,9	-1,0
Gaizki edo bat ere ez	-0,7	-8,5	13,5	3,1	-10,9	12,9	0,5
Guztira	0,6	1,6	10,3	12,8	-0,9	9,8	8,8

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo pot.

4.22.c taula

**Biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren bilakaera, atzerriko hizkuntzak jakitearen arabera
(% bertikalak)**

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Aktiboa				Potentzialki aktiboa		
	1999	2003	2007	2011	2003	2007	2011
Baten bat ongi edo oso ongi	19,0	21,0	25,0	27,3	21,0	24,8	27,3
Baten bat hola-hala	27,1	25,7	27,1	23,4	25,4	27,0	23,1
Gaizki edo bat ere ez	53,9	53,2	47,9	49,3	53,6	48,2	49,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo pot.

4.23.a taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboaren proportzioaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (%-tan)

Sexua eta adina	1999	2003	2007	2011
< 35 urteko gizonak	20,0	25,8	28,7	39,7
35-44 urteko gizonak	14,7	18,2	20,4	27,2
>= 45 urteko gizonak	9,6	12,2	18,4	16,1
Gizonak	15,3	18,9	22,5	26,5
< 35 urteko emakumeak	31,4	35,7	40,0	41,7
35-44 urteko emakumeak	19,1	18,4	27,7	25,6
>= 45 urteko emakumeak	13,5	12,1	15,4	18,5
Emakumeak	24,2	24,0	28,4	28,3
Guztira	19,0	21,0	25,0	27,3

4.23.b taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria potentzialki aktiboaren proportzioaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (%-tan)

Sexua eta adina	2003	2007	2011
< 35 urteko gizonak	26,4	29,5	40,2
35-44 urteko gizonak	18,2	20,4	27,0
>= 45 urteko gizonak	12,2	18,3	16,2
Gizonak	19,2	22,8	26,7
< 35 urteko emakumeak	36,1	39,2	42,4
35-44 urteko emakumeak	18,3	26,9	25,2
>= 45 urteko emakumeak	10,7	14,8	18,1
Emakumeak	23,3	27,6	28,1
Guztira	21,0	24,8	27,3

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo pot.

4.24.a taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboak dakien hizkuntza (Datu absolutuak eta hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakiten aktiboaren taldearekiko %ak).

Atzerriko hizkuntza	Datu absolutuak	Dakitenen taldearekiko %a
Ingelesa	229.906	75,4
Frantsesa	75.481	24,7
Alemana	9.716	3,2
Beste bat	52.343	17,2

4.24.b taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboaren proportzioaren bilakaera (%-tan)

Atzerriko hizkuntza	1999	2003	2007	2011
Ingelesa	14,4	17,0	19,5	20,6
Frantsesa	7,0	6,7	8,1	6,8
Alemana	,4	,9	1,1	,9
Beste bat	,9	1,8	4,0	4,7

4.25 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, lanbidearen arabera
(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Lanbidea	% bertikalak	Eragin-maila
Zuzendariak eta teknikariak	53,9	44,5
Administrariak	14,5	34,9
Zerbitzuetako kualifikatuak	11,4	17,7
Bestelako kualifikatuak	12,4	12,0
Zerbitzuetako kualifikaziorik gabeak	4,9	16,1
Bestelako kualifikaziorik gabeko langileak	3,0	18,1
Guztira	100	26,5

4.26 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera
(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Lanbide-kategoria	% bertikalak	Eragin-maila
Zuzendariak	3,7	31,0
Teknikariak	42,8	50,2
Erdi-mailako kargudunak	6,7	30,5
Langile kalifikatuak	27,3	18,4
Kualifikaziorik gabeko langileak	19,4	17,7
Guztira	100	26,5

4.27 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, erabilitako teknologiaren arabera

(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Erabilitako teknologia	% bertikalak	Eragin-maila
Produkzio automatizatu modernoa	6,6	18,3
Administraziorako informatizata	31,3	44,1
Bestelako teknologia modernoa	43,2	30,3
Produkzio-ekipo konbentzionala	2,2	7,1
Administraziorako konbentzionala	,7	21,4
Bestelako teknologia konbentzionala	16,0	17,1
Guztira	100	26,5

4.28 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, jarduera-sektorearen arabera

(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Jarduera-sektorea	% bertikalak	Eragin-maila
Nekazaritza	1,3	18,5
Industria	18,6	21,2
Eraikuntza	5,6	22,7
Zerbitzuak	74,5	28,9
Guztira	100	26,5

4.29 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, egungo lanean emandako urte-kopuruaren arabera

(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Eguno lanean emandako urte-kopurua	% bertikalak	Eragin-maila
3 urte baino gutxiago	28,3	34,7
3-9 urte	35,8	30,1
> 10 urte	35,9	20,3
Guztira	100	26,5

4.30 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Sexua eta adina	% bertikalak	Eragin-maila
< 35 urteko gizonak	21,4	37,9
35-44 urteko gizonak	16,5	26,4
>= 45 urteko gizonak	14,1	16,1
Gizonak	52,0	25,2
< 35 urteko emakumeak	22,3	42,2
35-44 urteko emakumeak	13,2	25,7
>= 45 urteko emakumeak	12,5	18,7
Emakumeak	48,0	28,1
Guztira	100	26,5

4.31 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien eta lan egiten ez duen biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak eta eragin-maila erreferentziako biztanlerian, %-tan)

Sexua eta adina	Aktiboa		Potentzialki aktiboa	
	% bertikalak	Eragin-maila	% bertikalak	Eragin-maila
< 35 urteko gizonak	32,5	46,3	31,5	47,8
35-44 urteko gizonak	14,8	32,4	13,0	30,7
>= 45 urteko gizonak	6,8	16,2	6,7	17,6
Gizonak	54,0	34,3	51,2	35,0
< 35 urteko emakumeak	26,8	39,7	28,6	42,8
35-44 urteko emakumeak	11,9	24,8	12,3	23,1
>= 45 urteko emakumeak	7,3	17,2	7,9	15,0
Emakumeak	46,0	29,1	48,8	28,3
Guztira	100	31,7	100	31,3

Lan egiten ez duen biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte lan egiten ez duen biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

EAE-KO BIZTANLERIA AKTIBOAREN TIPOLOGIA, KUALIFIKAZIO-MAILAREN ARABERA

15. 10etik 9 aktibok baino gehiagok kualifikazio-faktoreren bat dauka EAEn

Behin biztanleriaren kualifikazio-maila zehazten duten elementuak aztertuta, zenbait biztanleria aktibo mota bereiz daitezke, kontuan hartuta BAKIn landutako kualifikazio-elementuak: prestakuntza arautuaren maila, arautu gabeko prestakuntza osagarria, hizkuntzak jakitea eta lan-esperientzia. Beheko taulan ikus daitezke zehaztutako mota horien emaitza nagusiak¹⁰:

Biztanleria aktiboa, kualifikazio-maila orokorraren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta 2007tik 2011ra bitarteko hazkunde-tasa, %-tan)

Kualifikazio-maila orokorra	Datu abs.	% ber.	Datu abs.	% ber.	2007/2011 hazkunde aren %a
	2011	2011	2007	2007	
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	377.319	33,8	331.891	32,8	13,7
Lan-esperientzia esanguratsua eta prest. osagarri esanguratsua	46.043	4,1	42.864	4,2	7,4
Lan-esperientzia esanguratsua ikasketa kualifikaturik gabe	274.678	24,6	256.399	25,3	7,1
Ikasketa kualifikatuak lan-esperientzia esanguratsurik gabe	171.811	15,4	164.187	16,2	4,6
Prest. osagarri esanguratsua lan-esp. esanguratsurik gabe	145.473	13,0	108.864	10,7	33,6
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	101.734	9,1	108.516	10,7	-6,2
GUZTIRA	1.117.059	100	1.012.720	100	10,3

¹⁰ Tipologiak funtsezko printzipio hauek ditu oinarritzat:

1. Lan-esperientzia esanguratsutat hartzen dira honako bi egoera hauek:
 - a) Teknologia modernoko lanpostu batean gutxienez ere 3 urtez aritu izana jarraian, kontuan hartu gabe gaur egun lanpostu horretan diharduen ala ez; eta
 - b) Teknologia modernorik gabeko lanpostu batean gutxienez ere 10 urtez aritu izana, eta gaur egun oraindik lanpostu horretan jarraitzea.
2. Ikasketa kualifikatuzat jotzen dira espezializatutako prestakuntza tekniko eta profesional esanguratsua ematen duten ikasketak; hau da, unibertsitateko ikasketak eta bigarren mailako goi-mailako lanbide-heziketa.
3. Azkenik, prestakuntza osagarri esanguratsutat hartzen da hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi jakitea edota arautu gabeko prestakuntza-jarduerak egin izana, baldin eta jarduera horiek enpleguan eragina izan dutela frogatu bada; hau da, lanpostu bat lortzeko edo egungo lanean aurrera egiteko balio izan badute. Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen kasuan, egoera honetan sartu dira lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak eta erdi-mailako edo I. mailako lanbide-heziketakoak amaitu dituzten pertsona aktiboak ere.

Ikus daitekeen moduan, 2011. urtean, biztanleria aktiboaren bi herenek baino zertxobait gutxiagok (% 62,5) lan-esperientzia esanguratsua dauka¹¹. % 33,8k, lan-esperientzia hori izateaz gain, prestakuntza arautu kualifikatua dauka, eta % 4,1ek enpleguan eragina duen arautu gabeko prestakuntza osagarria dauka eta/edo atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi daki. EAeko biztanleria aktiboaren gainerako % 24,6ak, berriz, lan-esperientzia dauka, baina ez dauka prestakuntza arauturik edo arautu gabeko prestakuntza osagarri esanguratsurik.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenak biztanleria aktiboaren % 37,5 dira. Hortik, % 15,4k prestakuntza arautu kualifikatu handia dauka, eta % 13k, nolabaiteko prestakuntza osagarri esanguratsua. Azken horien kasuan, barnean hartu dira erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak.

Beraz, EAeko biztanleria aktiboaren % 90,9k badu kualifikazio-faktore esanguratsuren bat: prestakuntza arautu kualifikatua, lan-esperientzia esanguratsua, enpleguan eragina duen arautu gabeko prestakuntza osagarria, atzerriko hizkuntzaren bat ongi jakitea, edo, lan-esperientziarik ez duten pertsonen kasuan, oinarrizko hezkuntzaren ondorengo gutxieneko prestakuntza-maila bat (lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo erdi-mailako lanbide-heziketa).

Hortaz, EAeko biztanleria aktiboaren % 9,1ek soilik ez dauka aztertutako kualifikazio-ezaugarri bat bera ere. Proporzio horrek behera egin du etengabe; izan ere, 1995ean % 20,6 zen; 1999an, % 16,4; 2003an, % 14,1, eta 2007an, % 10,7.

Azpimarratu beharreko beste alderdi bat da aurkeztutako egitura oso desberdina dela lanerako egoera potentzialean daudenen artean. Izan ere, aktibo potentzialen artean, lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenak dira nagusi, egoera horretan baitago haien % 85,3 (biztanleria aktiboaren kasuan, berriz, % 37,5). Inolako kualifikaziorik ez duten pertsonen proportzioa da beste desberdintasunetako bat; hau da, prestakuntzarik eta lan-esperientziarik ez dutenena. Talde horrek aktibo potentzialen % 35 osatzen du, eta biztanleria aktiboaren kasuan, % 9,1 baino ez da. Nolanahi ere, proportzio horrek behera egin du 2007ko mailaren (% 42,1) aldean.

¹¹ Gogoan izan behar dugu gaur egun lan egiten duten nahiz lan egiten ez duten pertsonak eduki dezaketela esperientzia esanguratsua.

16. Azken urteotan, lan-esperientziak baldintzatu du biztanleria aktiboaren dinamika demografiko positiboa, prestakuntza-mailak baino gehiago

1999tik 2007ra bitartean, EAEko biztanleria aktiboaren bilakaeraren ezaugarri nagusia zen lan-esperientzia esanguratsua zuten kolektiboak gorantz egiten ari zirela. 1995etik 1999ra bitartean % 49,7tik % 48,5era jaitsi zen kolektibo horien pisu erlatiboa, baina 2003an % 55,3ra igo zen, eta 2007an, % 62,3ra. 2011n, ordea, goranzko joera hori hautsi egin da, baina 2007ko mailari eustea lortu da, % 62,5 izan baita kolektibo horien proportzioa.

Garrantzitsua da adieraztea lan-esperientzia esanguratsua duten pertsona aktiboen pisu erlatiboari euste hori biztanleria aktiboak nabarmen gora egin duen testuinguru batean gertatu dela (+% 10,3 igo da 2007tik 2011ra bitartean, eta 1999-2007 aldiko bi laurtekoetan % 0,6 eta % 1,6 igo zen, hurrenez hurren). Egia esan, lan-esperientzia eta ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria aktiboaren igoera (% 13,7) batez bestekoarena baino handiagoa izan da. Izan ere, talde horrek gorantz egiten jarraitu du nabarmen. 1995ean biztanleria aktiboaren % 17,9 zen; 1999an, % 19,5; 2003an, % 24,8; 2007an, % 32,8, eta 2011n, % 33,8 (proportziorik handiena). Kopuru absolututan, erreferentziako kolektiboa 166.483 pertsona izatetik 377.319 pertsona izatera igaro da 1995etik 2011ra bitartean.

Lan-esperientzia eta prestakuntza osagarri esanguratsua duten pertsonen proportzioa, berriz, 1995ekoa baino baxuagoa izan da 2011n ere, bai biztanleria aktiboan izan duten pisu erlatiboaren aldetik (% 4,1 2011n eta % 5,4 1995ean), bai eta bolumen kuantitatiboaren aldetik ere (46.043 pertsona 2011n eta 50.365 pertsona 1995ean). Nolanahi ere, nahiz eta 1999-2007 aldikoa baino erritmoa motelagoan izan, 1999tik aurrera gorantz egin du egoera horretan dauden pertsonen kopuruak (% +7,4 2007tik 2011ra bitartean).

Bestalde, lan-esperientzia esanguratsua duten baina ikasketa kualifikaturik edo prestakuntza osagarririk ez duten pertsonen bolumenak % 7,1 egin du gora 2007tik 2011ra bitartean, 2003-2007 aldian behera egin bazuen ere. Dena den, pisu erlatiboak beherantz egiten jarraitu du (2011n % 24,6 eta 2003an % 27,3, proportziorik handiena).

Oro har, lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboak % 45,3 egin du gora 1999tik 2011ra bitartean, eta era horretako esperientziarik ez daukaten aktiboen bolumenak % 17,9 egin du behera. Gainera, goranzko joera hori ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean izandakoa (% 39,3) baino handiagoa izan da.

16.1. Dena den, 2007tik 2011ra bitartean, hautsi egin da esperientzia esanguratsurik ez daukaten pertsona aktiboen beheranzko joera

Dena den, 2007-2011 laurtekoan hautsi egin da lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten aktiboen bolumenak 2007ra arte izandako beheranzko joera; izan ere, % 9,8 egin du gora aldi horretan.

Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona-talde horren barruan, ikasketa kualifikaturik ez duten baina prestakuntza osagarri esanguratsua duten pertsonena izan da igoerarik handiena. Kolektibo hori % 33,6 hazi da 2007tik 2011ra bitartean; hau da, biztanleria aktiboan duen pisu erlatiboa 2003ko antzeko mailara arte igo da (% 13 2011n, % 10,7 2007an eta % 12,9 2003an). Nolanahi ere, 2009ko mailaren (% 14,8) azpitik dago oraindik. Ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen igoera % 4,6koa izan da, EAEko batez bestekoa baino baxuagoa; hau da, kolektibo horrek biztanleria aktiboan duen pisua nabarmen ari da behera egiten (% 20,4 zen 1999an, eta beherantz egin du etengabe, 2011n % 15,4 izan arte).

Laurteko honetan, inolako kualifikaziorik ez duten pertsonen kopuruak soilik jarraitu du behera egiten (-% 6,2), baina 2007ra arte baino askoz erritmo motelagoan □izan ere, 2007tik 2011ra bitartean, gorantz egin du lehen mailako ikasketarik gabeko aktiboen kopuruak□. Kolektibo horrek biztanleria aktiboan duen pisua % 16,4 zen 1999an, eta beherantz egin du, 2011n % 9,1 izan arte.

17. Lan-esperientzia esanguratsua izateak ez-okupazioa prebenitzeko faktore nagusia izaten jarraitzen du

Lan-esperientziak izugarritzko garrantzia dauka, baina ez biztanleria aktiboaren goranzko bilakaera demografikoagatik soilik. Izan ere, lan-esperientzia esanguratsua lortzeak edo ez lortzeak baldintzatzen du, azken batean, langabeziako edo ez-okupazioko maila handiak izatea edo ez izatea.

Ikusi ahal izan da, lan-krisi handi bat egon arren eta 2007ko mailatik (% 1,6) nabarmen gora egin arren ere, lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktibo osoaren ez-okupazio tasak baxua izaten jarraitu duela 2011n: % 4,5, hain zuzen (% 5, biztanleria aktibo potentziala gehitzen badugu). Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen artean, berriz, tasa % 34raino igo da (% 37,3raino, biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu); hau da, 2007ko maila (% 13,1) halako 2,5 izan da. 2007ko maila handia zen dagoeneko, baina beherantz egiten ari zen aurreko urteen aldean; izan ere, 1999an % 30,3 izan zen, eta 2003an, % 19. Beraz, lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen okupazio-krisiaren eragin gutxi izan dute, baina esperientzia-maila hori ez dutenek, eragin handiagoa.

17.1. Nolanahi ere, ñabardura batzuk daude; batez ere, prestakuntza osagarria duten pertsonen bilakaera besteena baino okerragoa izan dela

Nolanahi ere, adierazi behar da aurreko atalean aipatu ditugun bi kolektibo handiek 1999koak baino ez-okupazio tasa handiagoak izan dituztela 2011n (1999an % 2,5 eta 2011n % 4,5 esperientzia esanguratsua daukaten pertsona aktiboek, eta 1999an % 30,3 eta 2011n % 34 era horretako esperientzia ez daukan biztanleria aktiboak).

Bestalde, ez du lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktibo osoak lortu 2011n okupazio-krisiaren eragin handitik ihes egitea. Ez-okupazio tasak % 5en azpitik jarraitzen du ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean nahiz prestakuntzarik ez daukaten pertsonen artean, baina ikasketa kualifikaturik ez daukaten baina nolabaiteko prestakuntza osagarria daukaten pertsonen artean % 1,2tik % 11,4ra igo da 2007tik 2011ra bitartean. 1999ko tasa (% 5,2) bikoiztu du kolektibo horrek.

18. Prestakuntza kualifikatuak ez-okupazio tasa baxuagoak izaten laguntzen die esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen ere

Nahiz eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria aktiboak ez-okupazio tasa handiak dituen kasu guztietan, ikusi ahal izan da ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen krisiari aurre egiteko gaitasun handiagoa izan dutela 2011n. Talde horretan, ez-okupazio tasa % 24,4 izan da; ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonen artean, berriz, % 40 baino zertxobait handiagoa. Biztanleria potentzialki aktibo osoa hartzen badugu kontuan, ez-okupazio tasa % 26,7 da ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean, % 43,6 prestakuntza osagarria duten pertsonen artean, eta % 45,3, tasarik handiena, ikasketa kualifikaturik eta prestakuntza osagarriarik ez duten pertsonen artean.

Bestalde, lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria aktiboan, ez-okupazio tasak motelago egin du gorantz 2007tik 2011ra bitartean ikasketa kualifikatuak dituzten pertsona aktiboaren artean (% 11,7tik % 24,4ra), baina igoera askoz handiagoa izan da prestakuntza osagarria duten pertsonen artean (% 16,4tik % 40,7ra) eta inolako prestakuntzarik ez duten pertsonen artean (% 11,9tik % 40,4ra). 2011ko tasa 1999koaren antzekoa izan da ikasketa kualifikatuak dituzten taldean (% 23,9 1999an), eta 5 puntu edo gehiago igo da prestakuntza-maila baxuagoa duten pertsonen artean (1999an % 35,7 eta 2011n % 40,7 prestakuntza osagarria duten pertsonen artean, eta 1999an % 33,3 eta 2011n % 40,4 inolako prestakuntza esanguratsurik ez duten pertsonen artean).

18.1. Inolako lan-esperientziarik eza mugatua da

Nolanahi ere, lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria aktiboaren mugak ez daude lehenengo lan-esperientzia lortzeko zailtasunarekin lotuta. % 5,1ek soilik izan du

arazo hori 2011n, 1999an (% 7,2) baino gutxiagok. Ikasketa kualifikaturik ez duten baina nolabaiteko prestakuntza esanguratsua duten pertsonak izan dute horrelako arazoan proportziorik handiena (% 7,8), eta biztanleria aktiboaren barruan % 5etik gorako mailak izan dituen talde bakarra izan da (% 9,6ko tasa, biztanleria potentzialki aktibo osoa hartzen badugu kontuan).

18.2. Baina laneko ezegonkortasunaren eraginak berebiziko garrantzia du

Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten taldeetako biztanleria landunaren artean, laneko ezegonkortasuna da alderdi azpimarragarrienetako bat. 2011n, oso handia izan da erreferentziako kolektiboetan aldi baterako kontratuekin, obra-kontratuekin edo kontraturik gabe lan egin duten pertsonen proportzioa: % 37, prestakuntza esanguratsurik gabeko pertsonen artean, % 42,2, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen artean, eta % 54,1, prestakuntza osagarria duten pertsonen artean. Lan-esperientzia esanguratsua duten kolektiboen artean, berriz, % 7-8 izan da proportzioa, prestakuntza-maila edozein dela ere.

19. Gizonen lan-egoerak okerrera egin du emakumeenaren aldean; batez ere, ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientziarik ez dutenen artean

Kualifikazioa, sexua eta adina batera hartuz gero kontuan, ikus dezakegu biztanleria aktiboko zer kolektibo izan diren azkeneko lau urteetan okupazio-mailaren bilakaerarik okerrera izan dutenak: 2011n % 15eko edo gehiagoko ez-okupazio tasak izateaz gain, 2007-2011 aldian 10 puntu inguruko edo hortik gorako igoerak izan dituztenak. Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen artean, ikasketa kualifikaturik ez duten baina nolabaiteko prestakuntza osagarria duten 45 urtetik gorako emakumeei eta 35-44 urteko pertsonen soilik eragin die. Lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten pertsonen artean, berriz, ikasketa kualifikaturik gabeko pertsona guztiei eragin die, prestakuntza osagarri esanguratsuren bat eduki edo ez, bai eta ikasketa kualifikatuak dituzten 35 urtetik beherakoei ere, gizonei nahiz emakumei.

Dinamika horren ondorioz, 2011n ez-okupazio mailak 15 puntu inguru edo gehiago hazi dira 1999koen aldean, lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria duten aipatutako kolektiboen artean. Lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten pertsonen artean, berriz, gauza bera gertatu da ikasketa kualifikatuak dituzten 35 urtetik beherako gizonen artean, nolabaiteko prestakuntza osagarria duten 35 urtetik gorako gizonen eta 45 urtetik gorako emakumeen artean eta inolako prestakuntza esanguratsurik (ez arautu kualifikatua ez osagarria) ez duten 35 urtetik gorako gizonen artean.

Azpimarratu behar da, dena den, lan-esperientzia esanguratsurik eta prestakuntza osagarriarik ez duten aipatutako pertsonen artean eta lan-esperientziarik eta prestakuntza esanguratsurik gabeko 45 urtetik gorako gizonen artean, 2007a baino lehen hasi zela

okupazioa okerrera egiten. Kasu guztietan, ez-okupazio tasek gorantz egin dute etengabe 2003tik.

Bilakaera negatibo horrek gizonei eragin die nagusiki, eta, 2011n, lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten gizonen okupazio-posizio erlatiboak behera egin du. Ikasketa kualifikatuak dituzten 35 urtetik gorako pertsonen artean izan ezik, lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen kasuan, gizonen ez-okupazio tasak emakumeenen antzekoak edo emakumeenak baino handiagoak izan dira. Era berean, lan-esperientzia esanguratsua bai baina prestakuntza esanguratsurik ez dutenen artean ere, gizonen ez-okupazio tasak handiagoak izan dira. Askok aldatzen du horrek 1999ko errealitatea; izan ere, urte horretan, gizonen ez-okupazio tasak baxuagoak ziren ia kasu guztietan, eta aldeak oso handiak ziren lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen artean.

LAN-ESPERIENTZIA ESANGURATSUA LORTZEKO AUKERAK MURRIZTEA BALDINTZATZEN DUTEN EGOERAK

Lan-esperientzia esanguratsua ez izateak askoz langabezia-tasa eta ez-okupazio tasa handiagoak ekarri ohi dituzte eta enpresarekiko harremana ezegonkorra izatea eragin ohi duenez, komeni da adieraztea zer egoerak eragiten duten, nagusiki, lan-esperientzia esanguratsua bat eskuratu ezin izateko arriskurik handiena. Era berean, adieraziko dugu zer taldek duten arazo hori izateko arriskurik handiena, bai ikuspegi demografikotik, bai eta lortutako prestakuntza arautuaren ikuspegitik ere.

20. Okupazioarekin lotutako arrisku-faktore nagusiak

20.1. Kualifikazio baxueneko lanbideak eta lanbide-kategoriak

Lanbidearen ikuspegitik, zuzendariak, teknikariak eta administrariak EAEko batez bestekoak baino askoz aukera handiagoa dute lan-esperientzia esanguratsua lortzeko: % 80 inguruko edo hortik gorako mailak dituzte erreferentziako biztanleria landunean. Zerbitzukoak ez diren sektoreetako langile kualifikatuen artean ere, maila % 70etik gorakoa da: % 73,8, zehazki. Kolektibo horiek lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria landunaren % 77,5 osatzen dute.

Aipatutako kolektiboetan ez bezala, zerbitzuetako langile kualifikatuen eta kualifikaziorik gabeko langileen artean, lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen proportzioa % 50etik % 60ra bitartekoa da. Talde horiek lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria landunaren % 46,1 osatzen dute; zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako kualifikaziorik gabeko langileek, berriz, % 24,6 osatzen dute.

Lanbide-kategoriaren aldagaia kontuan hartzen badugu, argiago ikus dezakegu lan-esperientzia esanguratsurik ez izatearen eta lanbide-kualifikaziorik ez izatearen arteko lotura. Kualifikaziorik gabeko langileen kategorია da lan-esperientzia esanguratsurik ez izatearekin lotura handiena duena; izan ere, pertsona horien % 56,4k soilik eskuratu du lan-esperientzia esanguratsua. Proporzio hori % 73,2 da langile kualifikatuen artean, % 78,6 teknikarien artean, % 83,7 zuzendarien artean eta % 87 (proporziorik handiena) erdi-mailako kargudunen artean.

20.2. Zerbitzuetako adar batzuk

2011n, zerbitzuen sektoreko adarrek izan dituzte, oro har, lan-esperientzia esanguratsuaren proporziorik baxuenak biztanleria landunaren barruan: % 70etik beherakoak, zehazki. Etxeko zerbitzuek eta ostalaritzak dituzte mailarik baxuenak (% 33,7 eta % 50,5, hurrenez hurren), eta bestelako merkataritza-zerbitzuek ere % 65etik beherako mailak dituzte (% 63). Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen kasuan, adierazleak gutxiatik gainditzen du muga hori (% 66,4), eta merkataritzan ere, % 70etik beherakoa da (% 69,2). Zerbitzuen sektoretik kanpo, gai ez-metalikoak fabrikatzeko adarrean soilik aurki daitezke antzeko mailak (% 69). Eraikuntzan, tasa % 51,5 zen 2007an, eta % 71,7raino igo da 2011n; horrek argi erakusten ditu lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleriak 2007tik 2011ra bitartean izan duen okupazio-presio negatiboa. Prozesu horrek ekonomiaren beste adar batzuei ere eragin die; batez ere, arrantzari, industriaren adarren barruan, elikagai-industriari, material elektrikoaren fabrikazioari eta energia-produkzioari eta, hirugarren sektorearen barruan, enpresetarako zerbitzuei.

20.3. 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak; batez ere, 3-9 langilekoak

Zentro handietan, lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa handiagoa izan da; % 77tik gora izan da, zehazki, 100 langile edo gehiagoko establezimenduetan. 10-99 langileko zentroetan, berriz, baxuagoa izan da, % 68,3tik % 72,8ra bitartekoa; hau da, 1-2 langileko establezimenduetako mailaren (% 67,2) antzekoa. 3-9 langileko zentroek daukate mailarik baxuena (% 63,7). Azkeneko ñabardura hori alde batera utzita, oro har argi dago zenbat eta txikiagoa izan establezimendua orduan eta handiagoa dela lan-esperientzia esanguratsurik ez eskuratzeko arriskua.

20.4. Teknologia konbentzionalaren bitartez egiten diren lanak

Teknologia faktore erabakigarri bat da lan-esperientzia esanguratsua lortzeko. Izan ere, lan-esperientzia esanguratsua dutenen % 77,7k teknologia modernoa erabiltzen du laneko eginkizunetan, eta esperientzia hori ez dutenen % 61,9k, teknologia konbentzionala. Beste ikuspegi batetik begiratuta, teknologia modernoa erabiliz lan egiten dutenen % 83,1ek lan-

esperientzia esanguratsua lortu du, eta teknologia konbentzionala erabiliz lan egiten dutenen kasuan, proportzio hori % 46,5era jaisten da.

20.5. Enpresarekiko kontratu bidezko lotura ezegonkorak

Logikoa den moduan, lan-esperientzia esanguratsua eskuratzeak lotura dauka lanpostu egonkorra edukitzearekin, norberaren konturakoa nahiz kontratu mugagabe baten bidezkoa izan. Kontratu mugagabea duten soldatapekoen % 79,6k izan du lan-esperientzia esanguratsuren bat (% 74,7k 2007an), eta proportzio hori % 83,8 izan da, norberaren kontura aritzen direnen kasuan (% 79,6 2007an). Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen % 92,1ek norberaren kontura lan egiten du edo kontratu mugagabe bat dauka enpresarekin.

Aldi baterako kontratu bat edo obra-kontratu bat duten pertsonen edo kontraturik ez dutenen artetik, ordea, proportzio handi batek ez dauka lan-esperientzia esanguratsurik: % 74,9k, % 67,8k eta % 64,3k, hurrenez hurren (beste egoeraren bat dutenen artean, % 65,5ek). Hala eta guztiz ere, beste egoera batean dagoen kolektiboa barnean hartuta ere, biztanleria landunaren barruko kolektibo horrek lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen % 46,4 soilik osatzen du (% 45,4 2007an). Zatirik handiena kontratu mugagabea duten pertsonen edo norberaren kontura lan egiten dutenek osatzen dute 2011n ere (% 43,4 eta % 10,2).

20.6. Ez-okupazioa

Argi dago beharrezkoa dela lan egitea lan-esperientzia esanguratsua lortzeko. Gaur egun lan egiten duten pertsonen artetik, % 70,7k dauka lan-esperientzia esanguratsua –une honetan edo iraganean eskuratua– (% 65,2k 2007an); lan egiten ez duen biztanleria aktiboaren kasuan, proportzioa % 18,2 da, eta biztanleria aktibo potentzialaren kasuan, % 14,7. Lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen % 95ek lana dauka gaur egun.

Hala eta guztiz ere, aurreko datuek erakusten duen moduan, gaur egun lan egiten dutenetako askok (% 29,3) ez daukate lan-esperientzia esanguratsurik. Egia esan, 2011n, pertsona landunak lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten aktiboaren eta potentzialki aktiboaren % 62,7 izan dira.

21. Arrisku-talde nagusiak

Lan-esperientzia esanguratsua eskuratzeko zailtasun handiena duten arrisku-taldeei dagokienez, honako hauek dira aipatu beharreko ezaugarri nagusiak –biztanleria potentzialki aktibo osorako–:

21.1. Emakumeak

2003tik 2011ra bitartean, nabarmen egin du behera lan-esperientzia esanguratsurik ez duten emakume potentzialki aktiboen proportzioak. Hala eta guztiz ere, emakumeek lan-esperientzia esanguratsua eskuratzeko zailtasun handiagoa izan dute 2011n ere. Emakumeen % 46,1ek ez dauka era horretako esperientziarik; gizonen kasuan, berriz, % 32 da horrelako esperientziarik ez dutenen proportzioa (2007an % 45,8 eta % 34,1 ziren, hurrenez hurren). 2011n, lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria potentzialki aktiboaren % 55,9 emakumeak izan dira.

Emakumeek, produkzio-sisteman lan-esperientzia esanguratsu gutxiago izateaz gain, ez-okupazio tasa handiagoa dute biztanleria potentzialki aktiboaren barruan; izan ere, emakumeena % 20,2 da, eta gizonena, berriz, % 15,1.

21.2. Gazteak, gizonak barnean hartuta

Gazteak dira lan-esperientzia esanguratsurik ez lortzeko arrisku handiena dutenak. Hauek dira era horretako esperientziarik ez dutenen proportzioak: 25 urtetik beherakoen % 88,4; 25-29 urtekoen % 65,7, eta 30-34 urtekoen % 47,2. 35-49 urtekoen ehunekoak ere handiak dira: % 29tik % 37ra bitartekoak, hain zuzen. 50 urteko edo gehiagoko biztanleria potentzialki aktiboaren adierazleak soilik egiten du nabarmen behera, % 20 inguru baita lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioa.

Gazteek lan-esperientzia esanguratsu gutxiago izate hori ohikoa da gizonen nahiz emakumeen artean. 35 urtetik beherako gizon potentzialki aktiboen % 57,9k ez dauka era horretako esperientziarik, eta emakumeen kasuan, % 66,3k. 35 urtetik gorakoen artean, emakumeek zailtasun handiagoak izaten dituzte lan-esperientzia esanguratsua lortzeko; 35-44 urtekoen % 43,3k eta 45 urtetik gorakoen % 30,9k ez daukate era horretako esperientziarik. Gizonen kasuan, berriz, 35-44 urtekoen % 27,9 eta 45 urtetik gorakoen % 15,5 (ehunekorik baxuena) dira era horretako esperientziarik ez dutenak.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen proportziorik handienak dituzten adin-taldeetan ikus daitezke ez-okupazio tasarik handienak; hau da, 35 urtetik beherakoetan (% 22,6 gizonetan eta % 24,1 emakumeetan) nahiz 35 urtetik gorako emakumeetan (% 20,6 35-44 urtekoetan eta % 16,5 45 urtetik gorakoetan). Dena den, 35-44 urteko gizonen tasa ere handia izan da 2011n (% 14,5). 45 urtetik gorako gizonen artean soilik jaisten da adierazlea % 10etik behera (% 9,8).

21.3. Ikasketa kualifikaturik ez daukaten pertsonak, baina baita unibertsitateko adar batzuk ere

Ikasketa kualifikaturik gabeko pertsonak osatzen dute lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria potentzialki aktiboaren gehiengoa: guztiaren % 59,8 (2007an, % 58). Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak % 33,1 osatzen dute; lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenek, % 14,9, eta erdi-mailako lanbide-heziketako titulu bat dutenek, % 11,8.

Ikasketa-maila horietan guztietan, lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioa EAEko batez bestekoa baino handiagoa da; ikasketarik gabeko pertsonen artean eta erdi-mailako lanbide-heziketa ikasi dutenen artean, adibidez, proportzioak oso handiak dira (% 59,1 eta % 48,1, hurrenez hurren). Adierazleak % 40 gainditzen du, halaber, lehen mailako ikasketak dituztenen artean (% 41,5) eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 42,9). Goi-mailako lanbide-heziketa ikasi dutenen eta hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, aztertutako proportzioa % 33-35 ingurura jaisten da, eta goi-mailako unibertsitate-titulua dutenen artean, % 28,8ra.

Aurreko urteetan ez bezala, 2011n oinarritzko korrelazio bat ikus daiteke lan-esperientzia esanguratsurik ez daukaten pertsonen proportzioaren eta ez-okupazio tasaren artean. Egia esan, hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kolektiboa izan da 2007koen antzeko ez-okupazio tasak lortu dituen bakarra. Horri esker, hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten pertsonen tasaren azpitik geratu da 2011n, 2007an ez bezala.

Nolanahi ere, badira oraindik ere distorsio batzuk prestakuntza-mailaren eta laneratze-adierazleen artean. Lehenik eta behin, nahiz eta ez-okupazio tasa baxuagoa den erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean prestakuntza-maila apalagoa dutenen artean baino (erdi-mailako lanbide-heziketa daukatenen tasa % 23,4 da, lehen mailako ikasketak dituztenena % 24,1, eta ikasketarik gabekoena % 31), horrek ez du esan nahi lan-esperientzia esanguratsurik gabekoen proportzioa ere baxuagoa denik beti. Egia esan, proportzioa askoz handiagoa da erdi-mailako lanbide-heziketa ikasi dutenen artean lehen mailako ikasketak dituztenen artean baino (% 48,1 eta % 41,5, hurrenez hurren), eta aldea 2007koa baino handiagoa izan da (urte horretan % 45,2 eta % 41,8 ziren). Horren arrazoa da lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen proportzioa handia dela industria-lanbideekin lotura gutxien duten erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean; batez ere, administrazioko lanbide-heziketa ikasi dutenen artean.

Bigarrenik, goi-mailako unibertsitate-ikasketa batzuen kasuan, ez-okupazio tasak handiak dira; batez bestekoaren antzekoak edo batez bestekoa baino handiagoak, alegia. Hala gertatzen da, esaterako, Filologiarekin eta Beste gizarte-zientzia batzuekin (% 30,5 eta % 17,

hurrenez hurren); gainera, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioa % 30etik gorakoa da kasu horietan.

Prestakuntza-mailaren eta laneratze-mailaren arteko loturaren problematikak zehatzago aztertzen baditugu, ikus dezakegu zenbait problematika-mota daudela. Alde batetik, kolektibo batzuek ez-okupazio tasa baxu samarrak eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzio handiak dituzte. Litekeena da arrisku-egoera horrek kontratazioarekin soilik izatea lotura. 2011n, egoera horretan daude % 10 inguruko edo hortik beherako ez-okupazio tasak eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen artean % 30etik gorako proportzioak dituzten prestakuntza-taldeak. Hala gertatzen da erdi-mailako nahiz goi-mailako ingeniartzekin, hirugarren mailako erdi-mailako zenbait ikasketarekin, hala nola erizaintzarekin eta OHOkoko irakasleekin, eta goi-mailako zenbait ikasketarekin, hala nola Filosofia eta Letrekin.

Bestetik, ikus daiteke lehen mailako ikasketen ondorengo prestakuntza (bigarren mailakoa edo hirugarren mailakoa) duten kolektibo batzuek maila handi samarrak dituztela ez-okupazio tasetan (% 15 ingurukoak edo hortik gorakoak) eta lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioetan (% 40 inguruko edo hortik gorako tasak); egoera horrek adieraz dezake prestakuntzaren eta enpleguaren artean egokitzapen falta handia dagoela EAEko egungo lan-merkatuan. Nahiz eta kualifikatu gabeko ikasketa mota guztiekin gertatzen den hori nagusiki, prestakuntza kualifikatua duten taldeei ere eragiten die. Hala gertatzen da goi-mailako lanbide-heziketa batzuekin (administrazioarekin eta industriarekin loturarik ez daukatenekin) eta, unibertsitateen alorrean, Filologiako eta Beste gizarte-zientzia batzuetako tituluekin, nahiz eta azken horren kasuan lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioa zertxobait baxuagoa den.

Azkenik, honako talde hauek dituzte laneratze-mailarik handienak (% 10 inguruko edo hortik beherako ez-okupazio tasekin) eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportziorik baxuenak (% 25 ingurukoa edo hortik beherakoa): administrazioarekin eta industriarekin lotutako goi-mailako lanbide-heziketek eta hirugarren mailako goi-mailako ikasketa batzuek, hala nola Natura-zientziek, Medikuntzak, Ekonomiak eta Zuzenbideak.

21.4. Ezegonkortasunak emakumei eta 35 urtetik beherakoei eragiten die nagusiki, ikasketa kualifikatuak izan arren

Sexua, adina eta ikasketa-maila batera hartzen baditugu kontuan, ikus dezakegu biztanleria potentzialki aktiboaren barruko zer taldek izan dituzten, 2011n, egoerarik larrienak, % 15etik gorako ez-okupazio tasekin eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen artean % 40tik gorako mailekin. Egoera horretan daude, esaterako, ikasketarik gabeko pertsonak eta lehen mailako ikasketak dituztenak (lehen mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako gizonen kasuan izan ezik, esperientzia-mota hori ez duten pertsonen proportzioa % 29,2

baita), eta, oro har, 35 urtetik beherako gizonak nahiz emakumeak, prestakuntza-maila edozein izanda ere. Erdi-mailako lanbide-heziketako titulu bat duten 35 urtetik gorako emakumeen artean ere ikus daiteke egoera hori.

Beste muturrean, goi-mailako lanbide-heziketako edo unibertsitateko titulu bat duten 35 urtetik gorako pertsonak daude; izan ere, % 10 inguruko edo hortik beherako ez-okupazio tasak dituzte, eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko kasuen proportzioa, oro har, % 25etik beherakoa da. Nolanahi ere, egoera horretan dauden taldeen artean zenbait desberdintasun daude, eta, oro har, emakumeen kalterako da. Izan ere, azaldu dugun egoerak gizonen nahiz emakumeen eragiten dien arren, lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioa % 12tik % 15era bitartekoa da gizonen artean eta % 20tik gorakoa emakumeen artean. Ez-okupazio tasak, berriz, % 4tik % 7ra bitartekoak dira aztertutako talde gehienetan, baina goi-mailako lanbide-heziketako titulua duten 35 urtetik gorako emakumeen artean, proportzioa askoz handiagoa da (% 11,4).

Kualifikazio baxuagoko prestakuntza duten taldeei dagokienez, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako gizonak soilik gerturatu dira azaldu dugun egoera onuragarri horretara; izan ere, % 11,6ko ez-okupazio tasa dute, eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioa % 16,5 da.

Oso kolektibo gutxi daude tarteko egoera batean; hau da, % 15 inguruko ez-okupazio tasarekin, eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen tarteko proportzioarekin (% 15etik % 20ra bitartekoa). Erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako gizonak soilik daude egoera horretan. Ez-okupazio tasa kontuan hartzen badugu, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeak ere tarteko egoera horretara hurbiltzen dira, nahiz eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duten pertsonen proportzio handi samarra duten; % 33,8koa, hain zuzen.

Nahiz eta aurkeztutako datuek adierazten duten gizonen egoera emakumeena baino hobea dela, komeni da adieraztea 2007tik 2011ra bitartean 35 urtetik gorako gizon-talde batzuen datuek okerrera egin dutela. Alde horretatik, gogorazi behar dugu 2007an 35 urtetik gorako gizon-talde guztiak zeudela –ikasketarik gabekoak izan ezik– 2011n laneratze-maila handienekozat jo diren taldeen egoera berean. 2011n, ikasketa kualifikatuak (goi-mailako lanbide-heziketa edo unibertsitateko ikasketak) eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten gizonen soilik eutsi diote estatus horri. Nolanahi ere, 2007tik 2011ra bitartean, 15 puntu inguru hazi da ez-okupazio tasa lehen mailako ikasketarik ez duten, lehen mailako ikasketak dituzten eta erdi-mailako lanbide-heziketako titulu bat duten adin horretako gizonen artean. Era berean, 6 puntu inguru hazi da lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsonen proportzioa, gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gizonen artean. Emakumeen artean, antzeko gainbehera bat ikusi ahal izan da –nahiz eta zertxobait

baxuagoa izan den ez-okupazio tasen aldetik – lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorakoen artean.

Beste muturrean, 2007tik 2011ra bitartean goi-mailako lanbide-heziketako titulua duten pertsonen artean lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioa asko murriztu den testuinguru batean, lauteko honetan lan-merkatuak eman duen datu positibo bakarretako bat da behera egin dutela era horretako esperientziarik ez daukaten pertsonen proportzioak (% 36,2tik % 28,6ra) eta ez-okupazio tasak (% 13,1etik % 11,4ra) goi-mailako lanbide-heziketa ikasi duten 35 urtetik gorako emakumeen artean. Hartara, Euskadin laneratze-mailarik handiena duten taldeetako bat bihurtu da emakumeen kolektibo hori 2011n.

EAEko biztanleria aktiboaren kualifikazio-mailaren arabeko tipologiari buruzko taulen eranskina

5.1 taula
 Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa, kualifikazio-maila orokorraren arabera
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Kualifikazio-maila orokorra	Jarduerarekiko lotura					
	Aktiboa		Aktibo potentziala		Potentzialki aktiboa	
	Absolutuak	% bertikalak	Absolutuak	% bertikalak	Absolutuak	% bertikalak
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua	377.319	33,8	645	2,5	377.964	33,1
Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarri esanguratsua	46.043	4,1	0	,0	46.043	4,0
Lan-esperientzia esanguratsua ikasketa kualifikaturik gabe	274.678	24,6	3.148	12,2	277.826	24,3
Ikasketa kualifikatuak lan-esperientzia esanguratsurik gabe	171.811	15,4	5.432	21,1	177.243	15,5
Prestakuntza osagarri esanguratsua lan-esperientzia esanguratsurik gabe	145.473	13,0	7.513	29,2	152.986	13,4
Ez lan-esperientzia esanguratsurik, ez ikasketa kualifikaturik	101.734	9,1	9.026	35,0	110.759	9,7
Guztira	1.117.059	100	25.762	100	1.142.821	100

Biztanleria potentzialki aktiboari buruzko datuek barnean hartzen dituzte biztanleria aktiboa eta aktibo potentziala.

5.2.a taula

